





SORGINTXULO

eta ametsak egi bihurtu ziren!!

Laster
etb^{n!!}



etb 1
hiru 3



Eguna esnatu orduko, ZURik bere egin beharrei heltzen zien. Izadia zaintzea, zeru eta lurrak oreka magikoan dantza araztea... horiek ziren bere ardurak. Bera bait zen izadiaren jainkosa.


Goiz batean, oilarra kukurrukuka hasi aurretik, oi-huak eta kexak entzun zituen basoaren erdi aldetik zetozenak. Jauzi batean jeiki eta berehala han agertu zen, kexaka zegoen izei txikiaren ondoan. Honek esan zion, ondoko haritza handiak ez ziola lekurik uzten. Itzal egiten ziola, eta berak ere eguzkiaren izpiak behar zituela handia eta sendoa egingo bazen. Haritzak berriz, enbor eta sustrai handiegia zituela esan zion, ezin zela handik mugitu. Berak gustura egingo ziola tartetxo bat, baina nola?



ZURIk eguzkiarekin hitz egitea erabaki zuen. Arren eta mesedez, izeiri izpi batzuk bidali behar zizkio-
la. Eguzkiak erantzun zion, berak ez zuela arazorik, gustura egingo zuela, baina nola? Nondik? Haizeak haritzaren adarrak mugi araziko balitu agian, berak izpiak sartu arazteko lekutxo bat irekiz... ZURIk haizeari galdetu zion, eta honek baietz. Haizeak, putz egin zuen orduan, haritzaren adarrak mugitu egin ziren, eta eguzki izpiak tarte horretatik bidea egin izpi bero eta gartsuak izei txikiarengana helarazteko.



***Izeiak eguzkia behar du.
Bidea erakutsiko diozu?***



Baina ZURIk izugarri atsegin zuen ere jolas egitea, eta goizeko lanak amaitu orduko, bere bi lagun minen bila abiatu zen. TOR eta GORRITXO ziren. TOR azti trakets eta baldar bat zen. Egun osoa trikimailuak, magia eta jolasak nahasten ematen zuen. Eta GORRITXO berriz, galtzagorri bihurri eta jolasti bat. Biak elkar izugarri maite bazuten ere muturka ematen zuten egun osoa. Eskerrak ZURIk giroa baretzeko dohai apartak zituela.

**Magia
gustuko
al duzue?**




*Honako honek zuen gurasoen
telefonoarekin magia egin dezake.
Nire trikimailu bat ikusi eta ikasi nahi?
Aurrera?... Edo ikusi*

www.eitb.eus/sorgintxulo-n



Trikuharriaren ondoan aurkitu zituen, tira, aurkitu zuen esatea zuzenagoa da. Izan ere, TORrek, bere magiaren bidez, GORRITXO desagertarazi egin bait zuen nahi gabe. TOR nahigabetuta zegoen. Esan zionez, hitz magiko batzuk esan eta trikuharriak irentsi egin omen zuen. ZURI trikuharriaren sarrerara gerturatu eta GORRITXO deika zegoela entzun zuen. "Etorri! Etorri!" egiten zuen oihu. ZURIk, TORren eskua heldu eta Trikuharriaren barrura egin zuen jauzi. Argi, haize eta kolore zurrumbilo batek irentsi zituen biak.

Kokatu gurutzegraman ETBko saio berriko pertsonaia eta lekuen izenak:





**ZURI
SORGINTXULO
GORRITXO
TOR
TRIKUHARRI**

ZURI eta TOR argi, haize eta kolore zurrumbilotik irten orduko zelai zabal, berde eta eguzkitsu batean agertu ziren. SORGINTXULO omen zuen izena lekuak. Hantxe zuten GORRITXO beraien zain. ZURIk ondo ote zegoen galdetu zion. TORrek benetan sentitzen zuela, ez zegoela egindakoarekin gustura eta ez zuela berriro egingo, saiaturako zela berriro ez egiten behintzat. Baina GORRITXOk ez zuen zirkinik mugitzen. Eskua altxa eta buelta emateko eskatu zien, atzean zutena ikusi behar zutela.

TORrek eta ZURIk agindutakoa egin eta aho bete hortz geratu ziren beraien atzean ikusi zutenarekin. Neska eta mutiko andana zegoen beraiei begira.

GORRITXOk bere bi lagunei azaldu zien, etorri bitartean jolasean eta kantuan pasa zutela guztiek elkarrekin, ipuinak ere kontatu dizkiela.

**Lagunduko al diguzu bi galtzagorri
hauen arteko 7 desberdintasunak
aurkitzen? Aurrera!**



ZURIk hartu zuen hitza.
-Kaixo, lami eta galtzagorritxook... Ni ZURI naiz,
hemengo hau TOR da, eta txikitxo GORRITXO...

Berehala TOR magia egiten hasi zitzaien. GORRITXOK
jolasik dibertigarrienak erakutsi zizkien eta ZU-
RIk izaki mitologikoen inguruko kondairak kontatu
zizkien. Konturatzerako, eguzkiak dir dir egiteari utzi zion,
eta ilargiak argi txikiz beteriko maindire urdin iluna za-
baltzen hasi zen. Joateko ordua zuten guztiek, bakoitza
bere etxera.

Orduan neskato batek galtzetatik tira egin zion
ZURIri. Berrir SORGINTXULOra itzuliko ote ziren
galdetu zion. ZURIk begiak parez pare ireki zituen.
Neskatoari baietz esan zion. Handik aurrera egunero
egunero elkar topatuko zutela SORGINTXULOn.

Aurkitu izaki mitologiko desberdinen izenak:
BASAJAUN, GALTZAGORRI, MARI, TARTALO, IRATXO,
JENTILA, OLENTZERO, ATARRABI, MIKELATS.

B	A	S	A	J	A	U	N	L	M	K	I	O
Z	X	T	P	E	T	A	R	T	A	L	O	L
N	T	A	O	N	A	D	X	B	N	T	U	E
G	I	L	X	T	R	Z	B	N	B	R	Z	N
M	I	E	Z	I	R	A	T	X	O	E	X	T
K	J	K	K	L	A	T	U	K	X	K	C	Z
L	B	I	R	A	B	R	O	P	Z	A	B	E
L	E	M	A	R	I	K	P	D	G	S	D	R
G	A	L	T	Z	A	G	O	R	R	I	G	O

Zatoz SORGINTXULOra!

Magia, musika, dantza,
euskal ondarearen
pertzan ondo
nahastu eta...



Horra zure telebista saio
berria! SORGINTXULO!

etb1n eta etb3n
urtarrilaren 12tik
aurrera!

Sorgintxulon elkar
ikusiko dugu!
Ez hutsik egin!

